



TOKIKO AGENDA 21 ADUNA EKINTZA PLANA

2013ko EMAITZAK

Gipuzkoako udalerriei
TA21eko ekintza planak
ebaluatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: *Enea*



TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA



ADUNAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Tokiko agenda 21


Tokiko agenda 21 1992an jaio zen Rio de Janeiron ospatu zen **Iraunkortasun Garapenari** buruzko Nazio Batuen Gailurrean lortutako hitzarmen bidez.

20 urte beranduago bere presentzia **Gipuzkoan** oso esanguratsua da.

Tokiko agenda 21aren presentzia Gipuzkoan

- **83 udalerrik tokiko agenda 21** onartu dute.
- **40** udalerrik beren tokiko agenda 21a urtero ebaluatzen dute, hauen artean, gureak, udalerrri hauek **Gipuzkoako biztanleriaren % 80 baino gehiago** hartzen dutelarik. Kasu hauetan, agenda 21a kontuen emateari bideratutako udal kudeaketa eredu gisa aurkezten da.
- Aldundiak **9** urte daramatza **tokiko agenda 21aren Behatokitik** bere garapena eta ebaluazioa sustatuz, baita udal politika hauen helburuekiko kudeaketa bultzatuz ere.


Nolakoa da gure udalerriko ekintza plana?



Eta gainontzeko tokiko agenda 21ekin alderatuz?

Gure planeko **ekintza kopurua**, antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz **altuagoa** da.

Inplikaturik dauden **eragileen kopurua** lurraldeko batez bestekoaren **antzekoa** da.




Iturria: GFAko 2013ko emaitzen txostena

2013ra arte zenbat gauzatu dugu?

Planaren **%19**
gauzatu da
1.go urtean


Eta zer adierazten du?

Lortutako gauzatze maila altua da oinarri bezala desiragarria den **helburuko balioa** hartzen badugu, baita urte horretan bertan lurraldeko **batez besteko balioa** hartzen badugu ere.



Iturria: GFAko 2013ko emaitzen txostena

Nola dago momentu honetan gure plana?



2013an aurreratutako ekintza batzuk

- 2.1.2 Oinezkoentzat jarritako guneak eraikitzen edo egokitzen jarraitu, oraindik beharrezkoak gerta daitezkeen eremuetan.
- 4.3.5 Gaur egungo birziklapen eredua hobetu eta birziklapen maila handitzeko ekimenak gauzatu, herritarrei nahiz enpresei zuzenduta.
- 8.2.2 Enpresa txikiak herrian ezartzeko orduan, telekomunikazio sarea hobetzea.
- 10.3.2 Etxebizitza hutsen kopurua gutxitzeko neurriak ezarri.

Ezartze-maila esanguratsua daukaten ildo estrategikoak

Burutzen ari diren **ekintza** **batzuk:**

Bizi kalitatearen eragin
dezaketen **ingurumen**
aldagaiak modu
eraginkorrean kontrolatzea
%25ko ezarpenarekin

Herritarren beharrak
asetzeko eta **eskubideak**
bermatzeko **baliabideak,**
azpiegitura eta
zerbitzuak eskaintzea
%24ko ezarpenarekin

- 5.1.1 Kutsadura mota ezberdinak (zarata, airearen kutsadura, usaina, ...) sor ditzaketen jarduerak identifikatu eta behar den kasuetan kontrolatu.
- 5.1.3 Nekazaritza eta abeltzaintzan ingurumen praktika egokiak ezarri.
- 10.2.1 Ariketa fisikoa bultzatzeko jarduerak antolatzea.
- 10.4.1 Sektore ezberdinen euskalduntzea sustatzeko neurriak ezartzea.
- 10.5.4 Herriko ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa ezagutzera eman

2014an sustapena behar duten ildo estrategikoak

Herritarren beharrak asetzeko **hiri-eredu orekatu** baten aldeko **udal kudeatzea** bultzatzea
%11ko ezarpenarekin

Herritarren ongizatea bermatzeko **baliabideak**
eskaintzea, **berdintasuna eta gizarte**
zuzentazuna bultzatuz **%13**ko ezarpenarekin

Informazioa gehiagorako gure web-ean dagoen **ebaluazio txosten osoa** begiratu dezakezu:

www.aduna.net

Adunako Udaletik tokiko iraunkortasuna hobetzearen alde egin nahi dugu, gure ekintzek globalki ere izan dezaketen ondorioak kontutan izanik.

‘Globalki pentsatu eta tokian jardun’

